

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

1599

EBAZPENA, 2018ko martxoaren 1ekoa, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Bizkaiko lurralde-ordezkariera. Honen bidez iragartzen da zerrendatutako finkak okupatu aurreko aktak egiteko deialdia, hain zuzen ere, Alzarrate-Orozko izeneko 1. Zto. 13,2 kV-ko linea elektrikoaren eta horren adarren zuhaitzik gabeko babes-eremua handitzea Arakaldo, Arrankudiaga eta Orozkoko udal-mugarteetan Bizkaiko Lurralde Historikoan. Linea hori Iberdrola Distribución Eléctrica SAren titulartasuneko da.

Erref.: L-8183 (48-AT-H-2015-21) IFT/MBA.

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariaren 2017ko apirilaren 12ko Ebazpenaren bidez, aipatutako instalazio elektrikoaren onura publikokoa dela deklaratu zen.

Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 55. artikuluan xedatutakoaren arabera, onura publikoko deklaratzek berekin dakar: eraginpeko eskubideak eskuratzea edo ondasunak okupatu beharra, eta, ondorioz, okupazioa premiaz egin beharra, betiere Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan zehaztutako ondorioetako.

Ondorioz, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluekin bat (1954ko abenduaren 17ko BOE), lurralde-ordezkaritza honek erabaki du eraginpeko eskubideen eta ondasunen jabe eta titularrei deitzea Arakaldo, Arrankudiaga eta Orozkoko udal-mugarteetan Bizkaiko Lurralde Historikoan udaletxeetara joan daitezen; izan ere, udalerrri horretan daude eraginpeko ondasunak. Beraz, hor egingo dira eraginpeko ondasunak okupatu aurretiko aktak eta, beharrezkoa bada, behin betiko okupazioarena.

Eraginpeko ondasunetan edozein eratako eskubideak edo interesak dituzten pertsona titularrak eta horretan bestelako interesik duten gainerako pertsona guztiak ere joan daitezke bilerara, bai zuzenean, eurak joanda, bai zeharka, euren ordezkari baimenarekin besteren bat bidalita; era batera zein bestera, titulartasuna egiaztatzeko agiriak eraman beharko dituzte, baita kontribuzioko azken ordainagiria ere. Hala nahi izanez gero, peritu edo notario batek lagunduta ere joan daitezke.

Honekin batera doan zerrendan aditzera emandako egun eta orduan jasoko dira aktak, eta hori zitazio-zedularen bitartez emango zaio jakitera titular bakoitzari, non lekua, eguna eta ordua adierazi beharko baitira. Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan ezarritako argitalpenak ere egingo dira.

Halaber, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Araudiko 56.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriaz, bai interesdunek bai argitaratutako zerrendetan aipatu ez diren interes errealean eta interes ekonomikoen titularrek nahi adina alegazio aurkez ditzakete, eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrendetan egindako akatsak zuzentzeko, hain justu ere idazki baten bitartez Bilboko lurralde-bulegoan (Concha Jeneralaren kalea 23, 5), aldeztu aurretiko aktak jasotzeko izendatutako egunera arte.

Halaber, Administrazio Publikoaren Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 xedatutakoaren arabera, eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluko bigarren

2018ko martxoaren 23a, ostirala

arauan xedatutakoaren arabera, iragarki honek hauei jakinarazpena egiteko balioko du: identifikatu gabeko interesdun posibleei, eraginpeko ondasun eta eskubideen titular ezezagunei, eta helbide ezezaguna dutenei.

Bilbao, 2018ko martxoaren 1a.

Bizkaiko lurralde-ordezkaria,
ADOLFO GONZÁLEZ BERRUETE.

2018ko martxoaren 23a, ostirala

ERANSKINA

ALDEZ AURRETIKO AKTETARAKO ZITAZIOA

ZUHAITZIK GABEKO ZERRENDA ZABALTZEA, AIRETIKO 13,2 KV-KO GOI-TENTSIOKO LINEAN, ALZARRATE-OROZKO 1. ZIRKUITUAN

ESPEDIENTEA: 48-AT-H-2015-021 (L-8183)

Finka (Proiektuaren arabera)	Katastroko datuak			Titularra	Hilabete	Eguna	Ordua	Udala
	Polig.	Partzela	Izaera/Laborantza					
2.89	06	080k	landa-lurra / laborantza	Olavarria Ros, José María	Maiatza	8	09:00	Orozko
2.90	06	080a	landa-lurra / ez-emankorra (hiri- eraikuntza)	Olavarria Ros, José María	Maiatza	8	09:00	Orozko
2.93	06	085d	landa-lurra / belardia	Mugica Larrinaga, Ricardo	Maiatza	8	09:30	Orozko
2.124	46	108	landa-lurra / belardia	Garaygorria Ugarriza, María Jesús	Maiatza	8	09:50	Orozko
2.174	27	039c	landa-lurra / fruta-arbolak	Arbaiza Urraza, Daniel	Maiatza	8	10:10	Orozko
2.436	18	228a	landa-lurra / belardia	Arbaiza Urraza, Daniel	Maiatza	8	10:10	Orozko
2.269	36	037	landa-lurra / baso zurgaita	González López, José Daniel	Maiatza	8	10:40	Orozko
2.312	27	149	landa-lurra / belardia	Mimenza Moya, Segundo	Maiatza	8	11:00	Orozko
2.394	11	101b	landa-lurra / belardia	Bernaola Bilbao, Aitziber	Maiatza	8	11:20	Orozko
2.434	18	322	landa-lurra / etzea	Olavarria Aspuru, María Teresa	Maiatza	8	11:40	Orozko
2.441	18	235	landa-lurra / baso zurgaita	Olabarria Laburu, José Ramón	Maiatza	8	12:00	Orozko
2.490	08	045b	landa-lurra / baso zurgaita	Hermanos Ibarrodo, C.B.	Maiatza	8	12:20	Orozko
2.491	08	045a	landa-lurra / baso hostozabala	Hermanos Ibarrodo, C.N.	Maiatza	8	12:20	Orozko
2.15	02	073	landa-lurra / baso hostozabala	Ezezaguna	Maiatza	8	12:50	Orozko
2.222	29	081	landa-lurra / belardia	Ezezaguna	Maiatza	8	13:00	Orozko
3.11	01	032a	landa-lurra / belardia	Ezezaguna	Maiatza	10	09:30	Arakaldo
4.04	2	058	landa-lurra / belardia	Azcue Gorostiza, Santa	Maiatza	10	10:30	Arrankudiaga